

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3760

EBAZPENA, 2018ko uztailaren 17koa, Erakunde Harremanetarako sailburuordearena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskadiko Toki Erakundeetan hizkuntza ofizialen erakunde- eta administrazio-erabileraren normalizazioari buruzko dekretu-proiektua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Euskadiko Toki Erakundeetan hizkuntza ofizialen erakunde- eta administrazio-erabileraren normalizazioari buruzko dekretu-proiektua prestatu du, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala iza-pidetu behar dena.

Horregatik, legezko erregulazio hori betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman zuen 2018ko uztailaren 3ko Agindua, zeinaren bidez hasiera eman baitzitzaion Euskadiko Toki Erakundeetan hizkuntza ofizialen erakunde- eta administrazio-erabileraren normalizazioari buruzko dekretu-proiektua egiteko prozedurari, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza hau izendatuta legegintza-prozedura hau tramitatu behar duen organo gisa. Geroago, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2018ko uztailaren 17ko Aginduaren bidez, aurretiaz onartu zen tramitatu beharreko dekretu-proiektuaren testua.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes bidezkoiei eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikularekin bat etorritik; eta euren izaera dela eta beharrezkoa bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Ebazpen honi dagokion arauketak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsona guztiei eragingo die, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako bizilagun direnez; horregatik, komenigarria da jendaurrean jartzea.

Hori dela-eta, bat etorritik Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikularekin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikularekin, aipatutako dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da.

Azaldutakoagatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zuen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 10.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Datorren irailaren 20 arte jendaurrean jartzea Toki Erakundeetan hizkuntza ofizialen erakunde- eta administrazio-erabileraren normalizazioari buruzko dekretu-proiektua.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko asmoz, proiektuaren edukia Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan egongo da eskura (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Era berean, dokumentazioa Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektro-nikoaren iragarki-oholean izango da (<https://www.euskadi.eus>), herritarren eskura.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 17a.

Erakunde Harremanetarako sailburuordea,
PEDRO LUIS BAZACO ATUCHA.